

# B

BARREN

TOKIKOM



# EGI Eguna bihar, Elgoibarren



# Cyclone, tratamendu ezinbestekoa eta berritzailea

**Etengabeko berrikuntzan diharduen Alire Estetika zentroak gorputza fintzeko azken-azken tratamendua dakar bere zentrorra. Elkarren osagarri diren bost teknika batzen dituen tramendu osoa eta berritzailea da.**

**A**urtengo udarako zure aliatu onena izango den tratamendua aurkezten dizu Alire Estetikak: Cyclone, tratamendu berri eta iraultzailea.

**Zer da cyclone?** Elkarren osagarri diren bost teknikaren bidez, gorputzeko koipe kopurua murriztu eta gure silueta fintzen duen makina da cyclone.

**Nola lan egiten du?** Bost dira erabiltzen dituen teknikak: Hifu, Ultrasonuak, irrati-frekuentzia monopolarra, irrati-frekuentzia bipolarra eta C.R.S. sistema.

Teknologia horiek hiru burutan kontzentratzen dira, eta bakoitzak bere funtzioa betetzen du.

**Hifu:** Ehunen albo-aldeei eragin gabe, zelula koipetsuetan lesio txikiak eragiten dituzten intentsitate handiko ultrasonu fokalizatuak dira.

**Ultrasonu eta irrati-frekuentzia monopolarrak:** Buru berean batzen dira bi sistema hauek, koipeak desegin eta azala gogortzeko.

**C.R.S. sistema:** Errotazio edo biraketa sistema, absortzio sistema eta irrati-frekuentzia bipolarra uztartzen dituen burua da.



Hiru egiteko betetzen ditu aldi berean: modelatu, drainatu eta tenkatu.

**Tratamendua:** Gomendagarriena sei eta hamabi sesio artean egitea da. Bakoitzaren beharren arabera, teknika horiek txandatzen joango gara emaitza hobea lortzeko. Ipurmasailtan, izatar-ondoetan, besoetan, sabelaldean, eta bizkarrean aplikatu daitezke, emakumezkoetan zein gizonezkoetan.


Azken batean, makina hau ezinbestekoa da zelulitisa gutxitzeko, eta pilatutako koipe eta likidoak kendu eta gorputza fintzeko.


# estetikaalire

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa

- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* ...

Upoiz zaharra, 1 behea  
Tel.: 943 531 636  
Elgoibar





Danele Sarriugarte

Miquel: Hasi da. Ari da. Badator. Bukararen hasiera, Bartzelona uzteko unea. Printzipioz. Apirilak oraindik gutxi batzuk dituen arren, badakigu zelan joaten den denbora, orain Pazko astearekin etxera buelta, edo besteen etxeetara bisita, edo bigarren etxeetan gelditzea besteak joan badoazen bitartean aprobetxatzeko. Eta uda atezuan. Zapatuan Iruñean gaztigatu gintuzten moduan pertsonala politikoa bada ere ez ote garen politiko tradizionalan gehiegi katigatu azken ikasturte honetan idatzi ditugun zutabeetan, ez ote diogun gutxiegi erreparatu gure egoera propioari, kasualitatez, egoera hori nahiko antzekoa izan den arren, hiri honek hartu gaituen arren, auzo diferentek, bi unibertsitatek, baina hainbat kasutan pertsona berberak.



Mikel Olaizola

Joder, Danele.

Eta ni komunekoz tazako bisita *mañaneroan* mobilean hau irakurtzen. Negarrez. Ze patetiko, ño. Beti kanpora begira, hemendik egurra banatuz, denei harrika eta gure barrura hormigoia, eta orain, eztarriraino gainezka. Bai aizu, negar egiten dudala tarteka, gehienetan bakarka, eta inoiz edo behin munduari pena emanaz, argi fluoresente beldurgarri-dun nit-busetan. Eta azken urte honetan aurreko hamarretan baino dezente gehiago. Zenbat olatu hemen idazten hasi ginenetik: ihes baten hautua lehenengo; mundu berri bat gero. Eta sekula horrenbeste maite izan ez ditugun pertsonak etorri zaizkigu. Eta sekula horrenbeste maiteko ez ditudanak joan, minez apurtuta utzita ni, arrakaletan berri ere hormigoia jaurtiz.

Azkenean, agian gauza batzuk ez dira aldatzen, ezta? Umetan beti haizetsu nenbilela eta amak esan ohi zidan hesteak korapilatuta neuzkala. Zenbat dakien amak. Eta oraindik ez dut askatzen asma-tu; hemen darrait, kartzelan eta puzkerti, maite ditudanei min eginaz mozkorraldi ilunetako konfesiota edo autokastrozioaren ezinean.

**“Ez dakit lagunak urrun utzi behar izatearen pena hori samurtzeko zerbait esan dezakedan”**

Domeka eguzkitsuz zuen etxean egindako bazkarian norbaitek komentario maitagarriren bat bota, elkar ondo ezagutu duzuela eta elkari estimua hartu diozuela erakusten duen komentario horietakoren bat esan eta malgukia bezala atera zitzaidan niri gogoeta: zenbat sumatuko duzuen (dugun) elkarren falta, laster. Laster, irailatik aurrera ziurrenik, udak oporraldi-edo izaten jarraitzen baitu, gure belaunaldikoen nerabezaro luzatu honetan. Azkar erantzun zenidaten horixe izan duzuela pisuan hizpide nagusi azken asteotan, eta horrekin batera aditutako hasperenak iradoki zidan datozenetan ere laster-bagoaz-giroak hartuko dituela partak Sants aldean. Udalekuetako azken eguna etorriko zaio askori gogorra. Duela zutabe zenbait aholkua-edo eskatu zenidan Elgoibarrerako itzuleraren inguruan, nik kanpoan bizitzaren esperientzia gehiago nuelako, eta uste dut errebuelta askorekin erantzun nizula, ohi bezala. Oraingoan, lagunak urrun utzi behar izatearen pena hori samurtzeko ez dakit zerbait esan dezakedan. Ohitzen zara, transzendentzia kentzen diozu, azala gogortzen zaizu, baina min ematen dut. Beti.

**“Tripak nahastuta jarraitzen dut, eta purpurinak erremindu dizkit barruak”**

Esan izan digutenetan ez dituztela gure zutabeak ulertu, zerbait gaizki egin dugula sentitu izan dut. Gaurkoan ez: bi-hiru-lau pertsonak hau ondo ulertzen badute balioko du jada zerbaitetarako. Okerrena batek ezingo duela irakurri, besteak ez duela irakurriko.

Nik neuk irakurtzea ere ba al da ordea zerbait? Literaturaren baliu terapeutikoaz jardun genuen lehengoan, eta arrazoia izango duzu agian, baina ez dakit, tripak nahastuta jarraitzen dut hau idatzi ostean ere eta purpurinak erremindu dizkit barruak. Joder ze kursi. Ez dakit Elgoibarrera itzuli ahalko naizen...

Muxu bat, beraz, zuri, Danele; eta beste bana maite nauzuen denoi,

Eta kupida pixka bat ahulekiko.

II. URTEURRENA

**JOSE MARI LARRAÑAGA ORBEGOZO**

2012ko apirilaren 10ean hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 12, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Amedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Danele Sarrigarte, Mike Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:



## Laguntzaileak:



elgoibar  
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Mende bat makina-erremintan

BARREN eta urte-urren horri buruzko artikulua irakurtzean, pena moduko bat sentitu dut eta sentipen horrek bultzatu nau lerro hauek idatzi eta penatxo hori zeuekin partekatzerara, irakurle.

Aipatutako artikulua horretan D. Jose Maria Arizmendiari, kooperatibak, Eguzki eta eliza ageri dira, besteak beste. Danobat ez da ezertarako azaltzen.

D. Jose Maria arizmendiari buruz, garai hartan (1953) ez genekin existitzen zenik ere. Berdin kooperatiba kontzeptua ere: hitza ere ez genuen sekula entzun. Baina Danobat sortzea erabaki genuenean, lehen baldintza denok partaide izatea zen. Fagor eta Eguzki lanean hasi zirenerako Danobatek hiru urte zeramatzen jardunean. Egia esatera, aipatu bi enpresa horietako batek, Danobaten eredu kopiatu baizik ez zuen egin.

Eta Eliza? Ni 10-13 urteko mutil koxkorra nintzenez, D. Saturnino Camposekin monagillo egon nintzen eta ez dakit zer ikasi nuen. Gerora, euskera guztiz zapalduta zen garaian. Lau lagun joan ginan D. Julian Eguren parrokoarengana elizan dena erderaz egiten zela, eta zerbait euskaraz egiteko modurik ote zegoen komentatzerara. Gure planteamendua bukatzeko astirik ez zigan eman eta motrolloan atera gintuzten ofizinatik kanpora. Elizak lagundu?

Danobaten 50 urteurrena liburua egin zan garaian, neure amets batetik sortutako proiektua izan zela defendatu nuelako, nire argazkirik gabe argitaratu zen liburua. Berdin lagile bezala ere. Gauza bera Juanito Garate eta biok lehenengo langileak izan ginela defendatu nuenean ..... Azkenean mapatik ezkutatu ninduten.

Urte batzuk pasatu dira handik hona, baina jokaera berak segitzen du. Hortik nire pena eta zuekin partekatzeko gogo hau. Eskerrik asko, beraz.

Felix Etxeberria "Parapan" ©

### Doluminak

Aurreko astean izan ziren Julita Gorrotxategi Osoro anderearen hiletak. Arnaldo askatu plataformako kideok gure hurbiltasuna eta doluminak adierazi nahi dizkiogu lerro hauen bidez haren familia osoari.

Arnaldo Askatu Politika Askatu  
Herri Ekimena ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

## OHARRA

Aste Santuko oporraldia dela-eta, datorren ostiralean ez dugu **BARREN** kaleratuko. Hurrengo alea apirilaren 25ean jasoko duzue.





**Kiroldegi aurreko garajerako sarreran zuloa dago:** "Aspalditik dago lurra zulatuta kiroldegi aurreko garajeko sarreran, eta ez dut uste hori konpontzea lan handia denik. Garajeko erabiltzaileek eskertuko genuke asfalto konpontzea. Eskerrik asko".



**Publizitatea ezin da edozein lekutan jarri:** "Diru asko gastatu dugu portala eta etxeko ataria berritzen, eta hainbat enpresa eta norbanakok edozein gune erabiltzen dute euren publizitatea jartzeko. Portal aldameneko postean jarri dizkigute pegatina pila bat, eta hain daude ondo itsatsita, ezin direla kendu. Propagandan ageri den telefonora deitu eta garbitzera etor daitezela esateko gogoia ematen dit. Errespetu pixkat eskatu nahi nuke".



**Txakurren zaunkek ez digute lo egiten uzten:** "Gabriel Krutzelaegiko bigarren zenbakian bizi garen auzokideok gauero txakurren zaunkak entzun behar izaten ditugu 23:00ak ingurura arte. Gauero talde bat irteten da beren zakurrekin eta ikastolaren aurrean zaunka jarduten dira auzokideoi lo egitea eragotziz. Eskertuko genuke txakurrekin lehenago aterako balira edota saiatuko balira txakurren zaunkak kontrolatzen".



**Kultur ekitaldietan ez al da derrigorrez gutxieneko sarrera kopuru bat txarteldegian saldu behar?:** "Joan zen igandean zinemara joan ginen, eta ordubete pasa ilaran zain egon ostean, txarteldegian sei sarrera bakarrik zeudela esan ziguten, jende gehienak Internetez erosi zituelako. Internet erabiltzen ez dutenek ez al dute filma ikusteko eskubide bera?".

Kultura Sailera jo du BARRENEK, eta arduradunek esan digutenez ez daukate horrelako araudirik ezarrita. *8 apellidos vascos* filmarekin gertatu dena salbuespena izan da, eta euren ustez, ezin dute araudi bat sortu horrelako salbuespen egoerei erantzuteko. Fenomeno mediatikoak sortutako egoera izan da, eta gutxieneko sarrera kopuru bat gorde izan balute ere, ez luketela kopuruan asmatuko adierazi dute Kultura Sailetik.

**Lerun industriguneko atzealdean konponketa batzuk egin beharko lirateke:** "Lerun industrigunera jende asko joaten da paseatzera, eta zona batzuk oso arriskutsu daude. Ibaira erortzeko arriskua dago. Hartziko baranda apurtuta dago, eta behin-behineko neurriak hartu dituzte, baina ez dut uste nahikoak direnik. Egunen baten ezbeharren bat gertatuko da, eta orduan beranduegi izango da neurriak hartzeko. Hartziko baranda hori lehenbailehen konpondu behar da".



## Energia berriztagarrien erabilera eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko prozesua hasi dute Debabarrenean

Elkarlanean dihardue Debabarrenako udalek, Debegeesak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak

**E**nergia Jasangarrirako Plana burutze aldera, parte-hartze prozesu bat jarriko dute martxan Debabarrenako udalek, Debegeesa garapen agentziaren bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Energiaren kudeaketa hobetu asmo du plan horrek, energia berriztagarrien erabilera eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko, eta bide batez, energiaren kontsumoa eta horri dagokion gastu ekonomikoa murriztu eta berotegi efektuko gasak gutxitzeko. Proiektu hau bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiaren Energia Planarekin. Gipuzkoako eraginkortasun energetikoa handitzeko sinergiak lortzen eta pixkanaka menpekotasun energetikoa eta kontsumitzailearen ahultasuna (pobrezia energetikoa) murrizten lagunduko duela dio Debegeesak.

### Lanerako prozedura

Energiaren plana egiteko, energia alorrean ezagutza eta esperientzia “zabala” duten eragileei eskatuko diete laguntza. Orain arte, 30 eragile inguru identifikatu dituzte, eta haiekin banan-banako elkarrizketak egitea izango da hurrengo lana. Elkarrizketatu dituzten artean energia alorreko enpresak (enpresa instalatzaileak zein mantenuaz arduratzen diren enpresak, elektrizistak, produktua duten enpresak, eraginkortasun energetikoan inbertsioak egiten ari diren enpresak...), erakundeak eta formazioarekin lotura duten eragileak daude. IE Team enpresa arduratuko da datuak biltzeaz. Lehenengo fase hau, beraz, informazioa jaso eta aztertzeko izango da, eta ondoren etorriko da ekintza plana.

## Baimena emana zioten arren, amaginarrebaren hiletarako beharrea domekan ekarri zuten Arnaldo Otegi Elgoibarrera, ordubeterako

Lau urteren ondoren, Elgoibarrera ekarri zuten domekan Arnaldo Otegi, Julia Gorrotxategi Osoro amaginarreba hil eta bi egunera. Hiletara agertzen uzteko baimena eskatua zuten Otegiaren senideek, eta eman ere egin zieten baimena, baina azkenean, ez zuten hiletarako ekarri. Argazkilariak zain zeuden barixakuan Elgoibarren, Otegiaren argazki baten zain, baina arratsaldean jakin zen Arnaldo Zaballako kartzelara eramana zutela eta litekeena zela hurrengo egunetan ekartzea hona. Hala izan zen. Domeka goizean, 9:30ak aldera ekarri zuten ezker abertzaleko bozeramaile izandakoa etxera, senideak bisitatzerako. Uniformerik gabeko ertzainek zainduta iritsi zen, kristal beltzeko furgoneta batean. Ordubete egin zuen etxean, eta etxean egindako argazki hau zabaldu zuten gero Otegi berak Twitter sare sozialean daukan kontuan.



## 7,9 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditu IK4-Idekok I+G+b proiektuekin

2013 urtean izan dituen emaitzen berri eman du Elgoibarko IK4-Ideko enpresak. Aurreko ekitaldian baino %5 proiektu gehiago lortu ditu Ik4-Idekok enpresekin kontratuplean –2013ko ekitaldian 165 proiektu lantzen dituzte–. Negozio zifra osoa %1ean handitu du zentro teknologiko honek eta 8,8 milioi euroko diru-sarrerak lortu ditu. Kopuru horretatik 7,9

milioi I+G+b proiektuetatik etorri dira, %60 enpresekin egindako proiektuetatik eta %40 hainbat instituzio publikoren finantziatutik. Diru-sarrera horiek gaikuntzarako eta espezializaziorako erabili dituzte, ezagutzarako eta gero enpresetara transferituko diren teknologia berriak garatzeko ikerketa proiektuak garatzeko.

Idekok aparteko garrantzia eman

dio Europar arloko ikerketan egindako ibilbideari. “IK4-Ideko osatzen duten ehun langileei esker lortu da unibertsi-tate, ikerketa-zentro eta goi mailako enpresekin lankidetzan ikerketaren aktibitateari eustea”, azaldu dute.

Ikerketa eta garapenari lotuta, bi patente berri ere eskuratu dituzte, eta horiekin, guztira hogeit hamar gaur egun dituzten patente aktiboak.



## Proiektua Google Maps-en 'Street View'



Elgoibarko eta Mendaroko Street View funtzioa martxan du dagoeneko Google Maps-ek. Joan zen urtean grabatu zituzten irudiak, ekaineko bizpahiru egunetan, eta irudietan azaltzen diren pertsonen aurpegiak eta ibilgailuen matrikulak lausotuta, sarean jarri dituzte orain irudiok. Google Map enpresak eskaintzen duen funtzio ezagunetarikoa da Google Street View. Munduko edozein kale edo bazterren 360 graduko ikuspegi panoramikoak eskaintzen ditu aplikazio informatiko honek, eta orain baita Elgoibarkoak eta Mendarokoak ere. Ordenagailu aurrean jarrita edo mugikor adimentsu bat erabiliz, hiru dimentsiotako ibilaldi birtualak egin ditzakegu orain Elgoibarko eta Mendaroko kaleetan barrena.

## Alberto Hijanok zilarrezko domina lortu du Fisikako Espainiako Olinpiar Jokoetan

Fisikako Euskadiko Olinpiar Jokoak irabazi eta gero, Alberto Hijano elgoibartarrak Fisikako Espainiako Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen joan zen astean, A Coruñan (Galizia). Fisikan dituzten ezagutzak neurtu zizkieten txapelketan parte hartu zuten 140 ikasleei, eta Hijanok zilarrezko domina eskuratu zuen, lehiakide ia denak urtebete zaharra-goak ziren arren. Gerard Orriols kataluniarra nagusitu zen, eta Vigoko Raul Alonsok eskuratu zuen bigarren postua. Lehen bost sailkatuek Espainia ordezkatuko dute Astanan (Kazakhstan), Fisikako Nazioarteko Jokoetan.



ESKERTZA

## ROSARIO ZULAIKA OSA

"Ondarru"

*Zure maitasun eta irribarrearekin  
gelditzen gara.  
Beti gogoan izango zaitugu.*



*2014ko apirilaren 3an hil zen. Rosarioren etxekook bihotzez eskertzen ditugu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Eneko Etxeberria Maialen Gurrutxaga Asier Atorrasagasti

EGIko kideak



**“Herri hobe eraikitzeko lanean diharduen taldean parte hartzeko aukera eskaintzen dugu”**

Euzko Gaztedik Elgoibarren ospatuko du bihar EGI Eguna, eta horren harira, biharko prestakuntza lanetan buru-belarri aritu diren hiru gazterekin jarri da harremanetan **BARREN**: Eneko Etxeberria EAJko zinegotzia (Elgoibar, 1984), Maialen Gurrutxaga (Elgoibar, 1992) eta Asier Atorrasagasti (Elgoibar, 1989). Egun osoko egitaraua antolatu dute, eta tartean herriko alderdikideak omentzeko ekitaldia ere iragarri dute, *Izan direlako, gara* lelopean. Izaskun Bilbao EAJko europarlamentariak eta Andoni Ortuzar EBBko presidentek parte hartuko dute ekitaldian.



### Zer nolako lana suposatu du EGI eguna Elgoibarrera ekartzeak?

Urtero Euskadiko lurralde batean ospatzen dugu EGI eguna. Aurten, gipuzkoarroi zegokigun egun hau antolatzea, eta Elgoibar leku interesgarria dela iruditu zitzaigunez, hemen egitea erabaki dugu. Kokapen aldetik, gainera, gure herria paregabea da. Lanerako, Gipuzkoako EGI-ren laguntza izan dugu, baita Elgoibarko batzokikoena eta hainbat tabernarrena ere. Hilabete eman dugu antolaketa lanetan, ekintzak lo-tzen eta jendearekin harremanetan jartzen.

### Biharko antolatu duzuen ekintzen barruan omenaldi bat ere iragarri du-zue. Nor edo zer omendu nahi duzue, eta zergatik?

Aurten EGIren 110. urteurrena da, eta aproposo iruditu zaigu, *izan zi-relako, gara* lelopean, herriko alderdikide nagusiak omentzeko. Merezitako aitortza izango da, orain arte egin duten lan guztia eskertzeko.

### Zenbat lagunek osatzen duzue gaur Elgoibarko EGI taldea?

Hamabost bat gara. Pixkanaka taldea hazten doa, eta atea zabalik dauzkagu parte hartu nahi duten herriko gazte guztientzat.

### EAJk agintzen duen Gipuzkoako herrian bizi za- rete. Non ikusten duzue arrakasta, eta non ikus- ten duzue gaur egun EAJren indarra?

Elgoibarko EAJ herriagatik eta herriarentzako la-nean diharduen taldea da. Kudeaketari dagokio-nean, urtez urte ikusi da emaitzak positiboak di-rela. Gainera, azken urteetan herriak izan duen eraldaketa nabarmena izan da. Lan guzti hori hautestontzietan islatzen da, eta seguru gaude datorren urtean ere, elgoibartarrek jakingo dute-la saritzen legegintzaldi honetan egindako lana.

Gainera, datorren urtean Gipuzkoako mapan ere aldaketa nabarmena espero dugu, Bilduk kudeatutako udalerrietan herritarren haserrea ez delako nolana hiko. Erakundeetako lana handia egin zaie, eta beti kritikatu dituzten jarrerak izan dira, hain zuzen ere, muturreraino eraman dituztenak.

### Gazteak zarete eta politikagintzan diharduzue. Epe laburrera begira eta berdin epe luzera begira, non ikusten duzue Euskal Herria?

Mugimendu politiko indartsuak gertatzen ari dira European, Eskozian eta Katalunian, esaterako. Ikustear dago zer nolako emaitzak lortuko dituzten, baina nolana ere, epe laburrean bideragarria dirudi Erkide-goko estatus politikoan sakontzea eta, Nafarroan, bi erkidegoen arte-ko harremanak onbideratuko dituen aldaketa politikoa gauzatzea. Epe luzera? Guk demokratikoki sortutako Euskal Estatua defendatzen du-gu, non euskal lurralde guztietako herritarrak batuko garen, eta zeinak euskara izango duen eguneroko hizkuntza.

### Herriatik sortutako dinamika batek, Gure Esku Dagok, indar handia har- tu du azkeneko urtebetean. Zer iritzi diozue mugimendu horri? Badau- kazue ekainaren 8ko giza katean parte hartzeko asmorik?

Hasiera batetik, argi gelditu da Gure Esku Dago ekimena alderdien di-namikatik haratagokoa izan dela. Hortaz, ekimenean parte hartzea era-baki pertsonala izaten ari da, eta ez elkarreana. Ideia politikoa baino gehiago, prepolitikoa da ia aldarrikapena. Egia da Elgoibarko EGI osa-tzen dugun zenbait pertsonak parte hartzen dugula, ahal dugun heine-an, baina esan bezala, norbanakoek hartutako erabakia izan da.

### Zer esango zenieke zuen alderdia, EAJ, Madril lotuegia dagoela diote- nei?

EAJ da gure herrian sortu zen lehen alderdia, hain zuzen ere, Madril-etik eta Parisetik askatzeko. Bide horretan, ibilbide demokratiko luzeena egin du EAJk, eta bere gazte erakunde gisa, oraindik bide luzeagoa egingo dugula aldarrikatzen dugu. Bihar Elgoibarren egingo dugun os-pakizunean ere horixe gogoratuko dugu, Euskadi aske baten alde la-nean dihardugula.

### Besteak beste, Wert legearen, urriaren 12ko ospakizunen, eta emaku- meen kontrako indarkeriaren kontra, eta abortu eskubidearen eta sol- data duinaren alde agertzen zarete zuen webgunean. Kalean, baina, beste alderdien ordezkari gazteek baino zarata gutxiago egin ohi du- zue, eta bitxia izan daiteke, gazteen errebeldia horrek gehienetan ka- lea izan ohi duelako erakusleihu nagusi. Zer diozue?

Egia da gure jarduna ez dela gure herrian ohikoak izan diren beste kul-tura politiko batzuenaren berdina, formei dago-kionez. Egia da zuzenketak aurkezteak oihar-tzun txikiagoa duela —lan handiagoa izan arren—, manifestazio batek baino... eta zer esa-nik ez eskaparateak apurtzeak baino. Horrek ez du kentzen gure printzipio politikoaren sendotasu-na eta horien defentsa irmoa: ezetz esaten die-gu, imotasun osoz, Espainiatik gure autogober-nuaren kontra inposatutako legeei, eta baietz esaten diegu, ezbairik gabe, aurrerapen sozialei. Baina guk konfrontazio demokratikotik planteatzen dugu eztabaida, eta halaxe planteatu dugu beti. Jokabideen arteko desberdintasuna izan

daiteke, akaso, diferentzia nagusietako bat; eta hori ere bada datorren larunbatean, EGI Egunean, harro egoteko arrazoi bat.

### Orokortzea zaila izango bada ere, bereziki zerk kezkatzen ditu gaur EGIk gazteak?

Bizi dugun krisiaren ondorio latzak kezkatzen gaitu, noski. Jakin bada-kigu Alfredo [Etxeberria] gogor ari dela lanean Elgoibarrek aurrera egin dezan, eta zer esanik ez Iñigo Urkullu lehendakaria. Bere lehentasune-tako bat gazteen enplegua sustatzea da. Espero dugu egoera honi ahal bezain azkar buelta ematea, eta bestelako arazoek indarra har-tzea eztabaida politikoen eremuan.

### Zer dauka EGIk Elgoibarko gazteei eskaintzeko?

Herri hobia eraikitzeko lanean diharduen talde batean parte hartzeko aukera. Talde bat, ikuspuntu abertzale eta demokratikoa duena, eta bat egiten duena Elgoibarrek zein Euskadik bizi izan duten aurrerape-nerako funtsezkoa izan den erakunde politiko batekin, Euzko Alderdi Jeltzalearekin.

### Militantzia asko apaldu dela diote zaharragoek; gazteak mugitzea kos- ta egiten dela eta konpromiso gutxi hartzen dituztela. Zuek ere suma- tzen duzue hori? Hala bada, zergatik dela iruditzen zaizue?

Egia da, izan, aldaketa sozial handiak jasan ditugula azken lau hamar-kadotan. Politikan parte hartzeko moduak ere aldatzen ari dira, eta guk ere lanean dihardugu parte-hartzea eta gardentasuna handiagoak izan daitezen egunetik egunera. Baina hala izanik ere, agerikoa da Elgoiba-rren badagoela talde gazte bat EGI-n militatzen duena eta herriaren al-

**“Ezetz esaten  
diegu gure  
autogobernuaren  
kontra Espainiatik  
inposatzen  
dizkiguten legeei”**

de lan egiteko konpromiso argia duena.

**Elkarbizitza sustatzeko proiektuan lanean dihardu Elgoibar-ko Udalak. Gazteon ikuspuntutik, zeintzuk pauso eman beharko lirateke? Zer daukazue zuek eskaintzeko bide horretan?**

Iragan latza du gure herriak. Guk espero dugu gurea izatea Euskal Herrian indarkeria ezagutu duen azken belaunaldia. Gure ondorengoak izan daitezela bakea baino ezagutzen ez dutenen lehen belaunaldia. Nola ez dugu, bada, zeresanik izango?.

**Elgoibar ez da salbuespena. Hemen ere bateko eta beste-ko biktimak daude. Jaurlaritzan, Bakea eta Bizikidetzatza Sailekoak azkena adierazi dute ez direla haien artean ondo moldatzen, eta halakoek zaildu egiten dute politikariengan sinistea. Zer dugu egiteko herritarrok?**

Pertsona bakoitzak bere ikuspuntua du eta normalizat jo behar genuke hori. Talde guztietan gertatzen da: elkartee-tan, enpresetan, eta baita politikan ere. Horrek ez du zertan eragin politikarekiko sinesgarritasunean. Guk sinisten dugu politikan, uste dugu balio duela gauzak aldatzeko, eta defendatzen dugu herritarrek parte hartzea bere ideiekin bat egiten duten alderdi politikoetan. Zentzu horretan, Elgoibar-ko EGIk ateak irekiak dauzka gurekin batera Elgoibar hobeko baten alde lan egin nahi duten gazteentzat.

**Elkarbizitzarako ezinbestekoa zirudien ETAK armak lagatzea. Borroka armatua laga duela adierazi du, eta bete du gehiengo handi batek eskatzen zuena. Zer espero duzue Espainiako eta Frantziako gobernuengandik?**

Guk bi printzipio nagusi defendatzen ditugu elkarbizitza posible egiteko. Lehenengoa, giza-eskubideen urraketa ororen aurka gaudela. Eta bigarrena, herria garenez gero, demokratikoki gure erabakiak hartzeko eskubidea dugula. Zentzu horretan, argi eta garbiak dira gure eskaerak: ETA desegin dadila, batetik; eta bestetik, bi gai desberdin daude Frantziako eta Espainiako estatuei eskatu beharrekoak: bata, giza-duintasunaren lerro gorririk ez dezala pasa espetxe-politikari dagokionean, eta egoera berria kontuan izan dezala politika horren ildoak finkatzerakoan, ahaztu gabe birgizarteratzea dela helburua, eta bestetik, nahiz eta horrek ez duen inongo zerikusirik gure herrian jasan dugun indarkeria-egoerarekin, gure herria subjektu politiko gisa aitortu dezala. Presoen auziak luzerako joko du, eta horrek elkarbizitzan eragingo du, baina subjektu politikoaren aitortza osoa gertatu bitartean, gatazka politikoak bizirik jarraituko du.

**Politikagintzan zeresan handia eman duen Arnaldo Otegi-ren herrikide zarete. Zer daukazue esateko haren inguruan?** Euzko Alderdi Jeltzaleak beti esan duen gauza bera: Arnaldo Otegi-k kalean behar lukeela. Guk herri gisa dugun proiektua aurrez aurre jarri nahi dugu Ezker Abertzalearekin, gainerako alderdiekin bezala. Gu beti agertu gara espetxe-ratze injustuen kontra, bestelako giza-eskubideen urraket-ten kontra agertu garen bezalaxe.

## EGI EGUNA. EGITARAUA

- 11:00 Ikurrinaren igoera (Batzokian)
- 11:15 Omenaldia (Kalegoen plazan)
- 12:00 Ekitaldi nazionala: Izaskun Bilbao EAJko europar-lamentariak eta Andoni Ortuzar EBBko presidentek parte hartuko dute.
- 14:30 Herri bazkaria (Parrokiako arkupeetan) Bertsoak eta trikitixa
- 18:00 Pilota partida. Patxi Eugi eta Iker Txurruka, Sebastian Gonzalez eta Asier Lizarralderen kontra arituko dira. (Kalegoen plazako frontoian)
- Arratsaldean zehar puzgarriak
- 19:00 Triki-poteoa
- 21:00-22:00 Diskofesta, Oihan Vegarekin (Maalako parkean)
- 22:00 Afari luntxa
- 23:00 Diskofesta, Oihan Vegarekin (Maalako parkean)





## 637 lagunek egin zuten korrika domekan, Jose Gurrutxagaren omenez


**E**lgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu zuten domekan. 637 lagunek egin zuten korrika Elgoibarko kaleetan zehar. Jose Gurrutxagak berak eman zien hasiera lasterketa guztiei, eta ondo baino hobeto zaindu zituen korrikalarien oinak lasterketa irteera bakoitzean. Udaberriko egun eguzkitsu eta epela lagun, ikuskizun aparta eskaini zuten ume eta helduek.





# FERNANDO CALLEJA

MARGOLARIA



## “Bizitzeko behar dut arte plastikoak lantzea”

Makina-erremintaren mendeurrenaren harira, Fernando Calleja artista bilbotarrak ‘Burdinezko arima’ margo erakusketa inauguratuko du apirilaren 22an. Bilboko Labe Garaiek txundituta izan zuten Calleja haurtzaroan, eta industriarekiko interesa piztu zitzaion. Duela 45 bat urte hasi zen margotzen, eta ordutik makina bat erakusketa egin ditu, Euskal Herrian eta baita Euskal Herritik kanpo ere. Elgoibarren ere egon izan da aurrez: Makina-erremintaren museoan jarri zuen ikusgai bere obra. Oraingoan Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko ditu ikusgai bere lanak, apirilaren 30era arte.



### **'Burdinezko arima' izena jarri diozu erakusketari. Zer ikusiko dugu erakusketan?**

Burdin industria dago erakusketaren oinarrian, horixe da erakusketaren arima. Hamalau koadro eramango ditut, eta gehienak siderurgia eta forjari buruzkoak izango dira. Tamaina guztietako lanak ikusteko aukera izango da: bi metrokoa da handiena, baina ertainak eta txikiak ere badaude.

### **Makina-erremintaren museoa ere jarri zenuen ikusgai zure obra. Zer iruditu zitzaizun museoa?**

Ikaragarri gustatu zitzaidan. Han dauden makina historikoak sekulakoak dira. Batzueri txatarra zaharrak irudituko zaizkie, baina niretzako bitxi preziatuak dira. Elgoibarko museoan sekulako aberastasuna dago. Oso polita izan zen nire lanak han erakustea. Arrakasta handia izan zuen, gainera, eta luzatu egin genuen. Patxi Lopez lehendakaria bera ere etorri zen erakusketa ikustera.

### **Zein ezaugarri ditu zure pinturak?**

Nik egiten dudana margoa oso berezia da, margoa eta eskultura uztartzen ditudalako. Nire koadroek erliebe nabarmenak dituzte. Erliebeak egiten ditut, lehenengo oihalaren gainean, eta gero hasten naiz kolorea sartzeko. Tornoak, prentsak edota bestelako edozein erremintari ematen diot bolumena, beira-zuntz eta poliester materialarekin. Beste kasu batzuetan, meategiei buruzko koadroetan, adibidez, mineral plakak sartzen ditut.

### **Makina-erremintaren mendeurrena ospatzen da aurten Elgoibaren. Zein lotura duzu zuk makina-erremintarekin?**

Makina-erremintak baino gehiago, meategiek piztu zuten nire interesa. Bilboko kanpoaldeko etxe baten bizi nintzen, baserri moduko batean. Nekazaritza eta abeltzaintza lantzen genituen


etxean, modu xumean. Gure inguruan meategi eta industria zen nagusi. Gure etxea irila moduko bat zen, industriatsa baten erdian. Nire jolasak meategietan zentratzen ziren: langile-buru guztiek ezagutzen ninduten eta ibiltzen nintzen buztina hartu eta nire figurak egiten. Meategietako lana ikusten nuen, eta neure buruari galdetzen nion handik iristen ziren harri haiek guztiak nora joango ote ziren. Handik urte batzuetara Bizkaiko Labe Garaiak bisitatzeak aukera izan nuen, aitaren bitartez, eta ikuskizun hark txundituta utzi ninduen. Beste mundu batekoa iruditu zitzaidan, eta orduan hasi nintzen han ikusitakoa koadroetan jasotzen.

### **Nola ikasi zenuen marrazten?**

Autodidakta izan naiz, dena neure kabuz ikasi dut. Hasiera zaila izan nuen, eta momentu dramatiko bat ere pasatu nuen, Batxilergoa ikasten nengoela. Marrazketa ikasgaia suspenditu egin zidaten. Nik ez nituen laminak kopiatzen; pertsonalizatu egiten nituen, eta gainera, nire ustez lamina orijinalak zituen okerrak zuzendu egiten nituen. Inpugnatu egin nuen, eta prozesu luze baten ondoren, suspentsotik ohorezko matrikulara aldatu zidaten kalifikazioa. Prozesu guztia dokumentatuta daukat, eta ondo gordeta. Dagoeneko 45 bat urte daramatzat margotzen.

### **Nola inspiratzen zara? Zein momentu dituzu gustukoaren margotzeko?**

Hiria lo dagoenean gustatzen zait margotzea. Gueuz egoten naiz lasaien, eta une horiek aprobetxatzen ditut. Horrek bere arriskua dauka, izan ere,



argi artifizialarekin margotzean koloreak ez dira berdin ikusten. Gueuz margotutakoa egun argiz ikustean ezusteko bat baino gehiago hartu izan dut. Argiarekin koloreak izugarri aldatzen dira, baina urteekin ikasi dut hori zaintzen. Egunez ere margotzen dut. Mendira joatea gustatzen zait, eta mendibuelta txiki bat egin ostean ere, oso gustura margotzen dut.

### **Zein proiektu dituzu orain eskuartean?**

Eskulturara itzuli naiz azkenaldian, eta oraingoan industriarekin zerikusirik ez duen gai bat lantzen ari naiz. Izpiritu futurista daukan koadro bat prestatzen dihardut, eta gizakia- ren sorreratik etorkizunera arteko ibilbidea jasoko dut. Horretarako, Neanderthal gizakia- ren buru-hezur bat modelatzen ari naiz koadrorako. Garai batean pintura espaziala ere landu nuen: planetak, sateliteak... Gerora industriari eskaini dizkion lanik gehienak eta orain gauza berriak probatzen nabil.

### **Krisi garaian posible da margoaz bizitzea ala zaletasun moduan daukazu?**

Ezinezkoa da gaur egun margoaz bizitzea, baina niretzat zaletasun bat baino askoz gehiago da pintura: behar mentala da. Bizitzeko behar dut arte plastikoak lantzea. Satisfazio handia ematen dit, eta gainera, telebista orduak gutxitu edo taberna zuloan egoteko denbora kentzen dit. Arteak, beraz, garbitasun mentala eskaintzen dit, nolabait esateko.



## MARIA LONGARTE

Mendaroko Gure Esku Dago taldekoa

**Erabakitze eskubidearen alde sortu den ‘Gure esku dago’ dinamikarekin bat egin, eta Gure Esku Dago taldea sortu dute Mendaron ere. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea batu asmo dituen giza kateari lehen babesa emateko, argazki bat atera zuten joan zen astean herriko elkarteetako ordezkariekin, eta gaur, *Gazta zati bat* dokumentala eskainiko dute San Agustin kulturgunean, 22:00etatik aurrera. Ekaineko giza katerako metroak saltzea dute lehentasuna, eta jendea girotze aldera hainbat ekintza antolatu dituzte.**

**Zerk bultzatu zaituzte taldea sortzera?**

Herritik sortutako ekimena izateak eta eskatzen dena eskubide demokratiko bat izateak. Erabakitze eskubidea eskatzen dugu, ez besterik, eta iruditzen zaigu demokrata sentitzen den edozeinek bere egiteko modukoa dela *Gure esku dago* ekimenak eskatzen duena. Ekimen hau ez da inongo alderdi politikotara lotzen. Sigla politikoen gainetik dago erabakitze eskubidea, eta, horrenbestez, bada ordua etorkizuna elkarrekin eraikitzen hasteko. Hemen inor ez dago soberan, eta argi dago ezin dugula halako gai bat politikarien esku laga. Herritarrok zeresan handia daukagu, eta horregatik, kolore guztietako jendea batzeko bokazioz sortutako ekimena da [[www.gureeskudago.net](http://www.gureeskudago.net)]. Bost lagunek sortu genuen hasierako taldea: Alex Aranberri, Amaia Etxabek, Enez, Ezenarok, Ainara Argoitiak eta nik neuk, eta gero Jurdan Ezenarro batu zitzaigun. Mendaron ez zela ezer sortzen ikusita, inguruko herrietako taldeekin harremanetan jarrita geunden gutako batzuk, baina iruditzen zitzaigun Mendarok ere behar zuela lekua ekaineko giza kate horretan, eta halaxe, telefono dei batzuk eta e-mail batzuk gurutatu, eta jarri ginen lanera.

**Argazki bat atera zenuten joan zen astean. Gustura zaudete erantzunarekin? Aurrera begira, zer?**

Oso gustura, egia esan. Herrian antolatu nahi ditugun ekintzetara deitzezko argazkia izatea nahi genuen. Garbi daukagu metroak saltzea dela hemen garrantzitsua, baina horretarako, herria girotu beharra dago, eta helburu horrekin antolatu ditugu, besteak beste, gaurko emanaldia eta maiatzaren 10eko Gure Esku Dago eguna. Gauza asko daukagu lotzeko oraindik, baina gure asmoa da ekimen honekin bat egiten duten norbanako eta elkarteekin elkarlanean antolatzea eguna.



**“Herritar guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera, etorkizuna gure esku dagoelako”**

Musika, kantua, kirol-saioa, bazkari herritarra... egun biribila izatea nahiko genuke. Horren harira eskerrak eman nahi dizkiegu Ludoteka eta Gaztelekuko arduradunei egun horretarako antolatuta zuten ekimen bat atzeratu dutelako, gurea ez zapuztearren. Horiek gaur arte lotutakoak, baina etorriko dira ekintza berriak, eta emango dugu horien berri kartelen bidez, sare sozialen bidez eta ahoz aho. [Facebooken *Gure esku dago*, *Mendaro* orrialdea sortu dute].

**Ekaineko giza katerako metroak saltzea da zuen lehentasuna. Metroak erosi nahi dituenak, zer egin dezake?**

Gaur arratsaldean irtengo gara kalera, metroak saltzera. Bi mahai jarriko ditugu, bata Mendarozabalen eta bestea, udaletxeko plazan, eta 18:00etatik aurrera hantxe egongo gara. Gauean, dokumentalaren aurretik eta ondoren ere egongo da metroak eskuratzeko aukera, eta baita apirilaren 16an eta 25ean ere, gaurko ordu berean eta gaurko lekue-tan. Mendarori 33. kilometroa (Bergara parean) osatzea dagokio ekaineko giza katean, Deba eta Mutrikurekin batera, eta ahal den jende gehiena batu nahi dugu. Egundorretan autobusak ere izango dira Bergarara joateko. Herritar guztiak animatu nahi ditugu parte hartzera, etorkizuna gure esku dagoelako, herritarren esku.



# Maite Maiora, Luis Alberto Hernando, Iban Letamendi, Alfredo Gil eta beste izen handiko batzuk Mendaron izango dira etzi

Domekan jokatu da Kilimon Trail proba, 24 kilometro luzeko lasterketa

**L**uis Alberto Hernando, Alfredo Gil, Iban Letamendi, Manuel Merillas, Abde Talda, El Abib Bouali, Imanol Goñi, Iñigo Lariz, Igon Manzisidor Maite Maiora eta Sonia Regueiro Mendaroko Kilimon Trail lasterketan izango dira etzi (10:00), azken orduko eragozpenik ezean. Izen handiko korrikalariak dira guztiak, mendiko lasterketa handienetan lehenengo hamarren artean dabilzanak asko, eta horietako batzuk oso ezagunak gure bueltan. Ikus-kizuna, beraz, ziurtatua dago. Kartelburua osatzen duten korrikalariak dira horiek, zaindu beharrekoak, baina ez dira bakarrik arituko. Izan ere, lerro hauek idazterako 215 korrikalari zeuden izena emanda –orain arteko gehien izan direnean 153 izan dira–.

Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatu du mendiko lasterketa. Aurtengoa laugarren urtea du, eta aldaketa batzuk izan ditu, izenetik bertatik hasita. Kilimon Trail izena jarri diote antolatzaileek, eta ibilbidean berrikuntzak egin dituzte. Berez, baina, 24 kilometro pasatxoko lasterketa da –kilometro bat ez beste guztiak, mendiz–, perfil zorrotzekoa oso eta korrikalariak 1.350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute (Facebookeko Kilimon Trail orrialdean daukazue ezaugarri gehiago). Herriko enparantzatik abiatuko dira lasterkariak, Egun mendirantz. Handik Madariaga auzorako bidea hartuko dute, eta Munitxibarreraino jaitsiko dira gero, Kilimon erreka ondoraino. Hiru bat kilometroko jaitsiera izango da. Ez dute atsedenerako tarterik izango, hala ere, gorako bidea hartu beharko dutelako berriro, aldatz handian gora. Larraskanda baserri ondotik igaro, Otarreko antena jo, eta handik, gainez gain Erentza baserri ondoraino. Handik, Gaintxipixa mendiaren azpiko aldera irtengo dira lasterkariak, Lizarpera, eta ia-ia Gaintxipixako tontorra jotzeraino igo, eta Garaluzerako bidea hartuko dute gero. Hori izango dute eguneko azken tontorra, abiatutako lekurantz bueltatu aurretik.



*Luis Alberto  
Hernando  
(Burgos, 1977)*

**2010:** Espainiako mendi lasterketen Kopako txapelduna.

**2011:** Mendaroko Lehenengo Mendi Lasterketako irabazlea; Europako txapeldunordea; Espainiako txapelduna; Munduko Kopako txapelduna.

**2012:** Zegama-Aizkorri maratoiko txapeldunordea; Munduko Txapelketako txapelduna; Espainiako kopako txapelduna; Munduko kopako txapeldunordea

**2013:** Transvulcana ultra traileko txapeldunordea; Zegama-Aizkorri maratoiko txapeldunordea; Europako Ultra Trail Txapelketako txapelduna; Espainiako Kopako txapelduna; Munduko Txapelketako txapeldunordea.

**2014:** La Vall del Congost maratoiko txapelduna (Espainiako Kopa).



*Alfredo  
Gil  
(Bejar, 1980)*

**2013:** Zazpigarren Zegama-Aizkorri maratoian; Espainiako txapelduna; Zazpigarrena Europako txapelketan.



*Iban  
Letamendi  
(Onati, 1978)*

**2013:** 7. Vallibierna Sky Racen (Espainiako Kopa) eta 16. Matthehorn Ultraksen (Munduko Txapelketa).

**2014:** 27K Kangas Mountaingo irabazlea, L.A. Hernandorekin batera, eta hirugarren sailkatua Vall de Congost maratoian (Espainiako Kopa).



*Manuel  
Merillas  
(Valsecas  
Leon, 1992)*

**2012:** Hirugarren Ehunmillak lasterketan eta Laugarren Cavallas de Venten

**2013:** Espainiako txapeldunordea; Madrilgo mendi maratoiko txapelduna; Bigarrena Traspine Runen; Laugarren Cavallas de Venten.



*Maite  
Maiora  
(Mendaro, 1980)*

**2013:** Bosgarrena Zegama-Aizkorri maratoian; Laugarrena Dolomita Skyn, Canazein (Europako txapelketa); Bosgarrena Kilometro bertikalen kopan; La Vall del Congost maratoiko txapelduna (Espainiako Kopa).

## Maiatzaren 1ean eta 2an berriz emango dute '8 apellidos vascos'

2.200 sarreratik gora saldu dituzte asteburuan



**K**ultura Sailak *8 apellidos vascos* filmaren sei emanaldi iragarri zituen astebururako, eta zazpigarren bat ere eskaini behar izan zuten martitzenean. Marka guztiak hausten ari da filma, eta diru gehien bildu duen gaztelaniazko filma da dagoeneko. Elgoibarren ere antzokia txiki geratu da saio guztietan. 2.200 sarreratik gora saldu dituzte, eta fenomeno hori ikusita, Kultura Sailak erabaki du filma berriz botatzea. Maiatzaren 1ean eta 2an, beraz, berriz izango da *8 apellidos vascos* ikusteko aukera. Egun bakoitzean bi saio emango dituzte, 19:30ean eta 22:15ean. Sarrerak kutxabank bitartez eta takilan (internet bitartez saltzen ez direnak) salduko dira.

## Eneko Gonzalez, Gaizka Uranga eta Nerea Sasiain auresku eta soinu zahar txapelketako finalean

Joan zen asteburuan Altsasun jokatu zuten auresku eta soinu zahar txapelketako azken kanporaketa, eta Elgoibarko dantzariak "maila ona" eman zutela adierazi du Jon Lizarralde dantza irakasleak. Gaizka Uranga, Eneko Gonzalez, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña, Nerea Sasiain eta Amaia Astigarraga izan ziren Elgoibarko ordezkariak, eta horietako hiru finalerako sailkatu ziren: Eneko Gonzalez eta Gaizka Uranga mutilen final nagusian izango dira, eta Nerea Sasiainek nesketan jokatuko du finala.



### 'Ondoko hilobiko tipoa' antzezlan gaur, Herriko Antzokian

Txalo Produksioak taldeak *Ondoko hilobiko tipoa* taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Aitziber Garmendia eta Iker Galartza dira komedia honetako protagonistak. Aiora eta Pablo maila soziokultural desberdinetako bi lagun dira; eta hilerrian egingo dute topo. 20:30ean hasiko da saioa. Sarrerak aurrez erosi daitezke [www.kutxa.es](http://www.kutxa.es) helbidean, eta bestela, txarteldegian bertan ere egongo da aukera.

### Txirri, Mirri eta Txiribiton domekan, Elgoibarren

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazokak Elgoibarrera etorriko dira domekan, *Terapia* ikuskizunarekin. Familiari ikusteko emanaldia izango da, eta ume zein nagusiak jarriko dituzte barrezka. Umorea izango da nagusi *Terapia* saioan. 16:30ean izango da emanaldia Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez erosi daitezke Internetez, [www.kutxa.es](http://www.kutxa.es) helbidean, eta bestela, txarteldegian bertan ere bai.

### Jasone Osororen 'Ezekiel nora ezean' liburua gustukoenen artean, Juul kanpainan

Irakurzaletasuna sustatzeko hauteskunde literarioak egin ditu aurren ere Ikastolen Elkarteak, eta dagoeneko jakinarazi ditu emaitzak: Jasone Osororen *Ezekiel nora ezean* liburua Juul hauteskunde literarioetako lehen saria jaso du DBHko ikasleen artean.

### Ipuin kontalaria gaur, sotoan

Atxutxiamaiak antolatuta, *Rosa, kontaidazu ipuin bat* ikusizkizuna izango da gaur arratsaldean, Kultur Etxeko sotoan. Hitz, ipuinak, musika, mugimenduak, soinuak, txo-txongiloak eta haurren berezko fantasiak uztartuko ditu Rosa Maria Martinez ipuin kontalaria. HH2tik LH2ra arteko umeentzako ikusizkizuna izango da. 17:30ean hasiko da.



# Elena Laka izango da Topagunearen presidente berria

93 euskara elkartek osatzen dute Topagunea

Urteko Batzar Nagusia egin zuen Euskaltzaleen Topaguneak zapatuan, Gasteizen, eta beste hainbat gairen artean, presidente berria aukeratu zuten: Azken bi urteetan presidente izan den Mikel Irizarrek, lekukoa pasa dio Elena Lakari, eta bera izango da aurrerantzean Topaguneko presidente berria. Laka abokatu eibartarrak “gogoz” hartu zuen kargua, eta Mikel Irizarri azken bi urteotan egindako lana eskertu zion. Topaguneko zuzendaritzan bost urtez parte hartu du Lakak, beraz, martxan dauden lanildoak ondo ezagutzen dituela eta jarraipena emango diela nabarmendu zuen.

2013ko errepassoari dagokionez, iazkoa urte kritikoa izan zela azaldu zuen Mikel Irizarrek; kritikoa, egoera ekonomikoak aurreko urtean baino estuago hartu zuelako Topagunea eta, kritikoa baita ere, onartutako eraldabideei gogor heldu eta eraldaketa martxan jartzeko urtea izan zelako. Bi faktore horiek kontuan hartuta, “ondo” baloratu zuen urteko emaitza.



Elena Laka eta Mikel Irizar.

Batzarra joan zen astean hil zen Koldo Mitxelena ...eta kittol! elkarteko koordinatzailea gogoratu hasi zuten. Urtetan ...etakitto! elkartearen eta aldizkariaren bihotza izan zen Koldo, eta baita Topaguneko zuzendaritzakide ere 2001 eta 2003. urteen artean.

Gaur egun, 93 euskaltzaleen elkartek osatzen dute Topagunea.

## Emilia Nogales, Bartzelonan

Emilia Nogalesek Bartzelonan jarriko ditu ikusgai bere lanak, apirilaren 26tik aurrera. Hogei bat koadro jarriko ditu ikusgai, eta horietako bat espreski prestatu du erakusketarako. Erakusketa jarriko duen ingurunea Europako larrosagune handienetakoa izan zen aintzina, eta kondaira baten arabera, Frantziako markesa batek Parisera eraman zituen handik larrosak. Historia hori kontuan hartu du Nogalesek koadroa prestatzeko. Erakusketa jarriko duen eraikina ere berezia da, eta koadroan ere lekua egin dio eraikinari. Euskal Herritik kanpora erakusketa egiten duen estreinako aldia izango da Nogalesentzat, eta oso pozik agertu da.




ESKERTZA

## JULIA GORROTXATEGI OSORO

*Maitatua sobera nintzelarik haurra  
ez nekien nik zer zen amaren beharra;  
Bortu batean orain naiz bakar-bakarra,  
amaz oroitu orduko heldu zait nigarra*

2014ko apirilaren 3an hil zen, 90 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## IMHko kantxa estaliko du Udalak, kirol taldeen entrenamenduak eta partida ofizialak hartzeko

800.000 bat euroko kostua izango du obra horrek

IMHko kirol kantxa Elgoibarko kirol taldeen beharretara egokitzeko aurreproiektua aurkeztu du Udalak, Olaizagako kantxak ez dituelako behar horiek betetzen. Sanlo eskubaloi taldeko 17 taldeek, CD Debarrena areto futbol klubeko hiru taldek eta Elgoibar-ko saskibaloi taldeak erabiltzen dute Olaizaga kiroldegiko kantxa; entrenamenduetarako aste barruan eta partida ofizialetarako asteburuan. Asteburuetan batez beste bederatzita partida ofizial jokatzeko dira Olaizagan. IMHko kantxa berria, beraz, Olaizaga kiroldegian dagoen kantxaren parekoa izango litzateke, harmailekin, aldagelekin eta estalpearekin.



### 800.000 euroko kostua

Duela urte batzuk kiroldegi berri bat eraikitzeke dauden aukerak aztertzen hasi zen Udala, baina oztoporik handiena finantziarioarena da. Kiroldegi berri bat eraikitzeke, gutxienez, zazpi milioi euro behar direla dio Rikardo Garate Hirigintza arduradunak, eta horregatik proposatu dute IMHko kirol pista estaltzea eta egokitzea. Obra horrek 800.000 euro inguruko kos-

tua duela azaldu du Garatek. Dagoeneko aurkeztu dute aurreproiektua Gipuzkoako Foru Aldundian, eta haien erantzunaren zain daude. Diputazioaren eta Jaurlaritzaren diru-laguntzarik gabe ezin izango dutela proiektua gauzatu adierazi du Garatek. Foru Aldundiak probintziako osoko kirol instalazioetara bideratutako zazpi milioi euroko partida bat du, eta kopuru horretako zati bat Elgoibarrerako izateko itxaropena dute.

## Gaizka Loiolak irabazi du eslalom erraldoia Espainiako Ezinduen Eski Txapelketan



Ezintasun fisiko bat dutenentzako mendiko eskiko Espainiako txapelketa jokatu zuten martxoaren 31tik apirilaren 2ra bitartean Andorran, Pas de la Casa eski estazioan. Gaizka Loiola 12 urteko elgoibartarrak itsuentzako modalitatean parte hartu

zuen, eta urrezko domina irabazi zuen eslalom erraldoian, Dani Gavalda gidariaren laguntzarekin. Gaizka Loiolak eta Dani Gavalda zazpi eski denboraldi daramatzate elkarrekin eskiatzen, Araneko haranean. Eskiatzen dutenean gidari lanak egiten dizkio Gavalda Loiolari, sortzez itsua baita 12 urteko gazte elgoibartarra. Espainiako txapelketa prestatzen aritu dira biak azken aldia eta entrenamendu gogorrak egin dituzte. Dani Gavalda entrenamenduetan egin dituzten jaitsieretako irudiak ere igo ditu Youtubera, ikusmenik gabe eskiatzeak duen zailtasuna erakusteko. Entrenamenduetako lan gogorrak, baina, bere fruitua eman zuen Andorran jokatu zuten Espainiako txapelketan. Jubenil mailan parte hartu zuen Gaizka Loiolak eta bera baino eskiatzaile zaharragoen aurka lehiatu behar izan bazuen ere, bera izan zen azkarrena eslalom erraldoian.

### Atxutxiantxixika saioa antolatu du biharko, Elgoibarko Izarrak

Atxutxiamaika Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak Atxutxiantxixika proba antolatu du biharko. 2tik 5 urtera arteko umeentzako proba izango da. Kalebarren plazan hasiko da korrika saioa, 11:30ean. Parte hartzeko interesa dutenek Kultur Etxe aurrera agertu beharko dute.

### Eskubaloi Eguna antolatu dute maiatzaren 1erako

Sanlok Eskubaloi Eguna antolatu du maiatzaren 1erako, benjamin eta alebin mailako neska-mutilentzat. Eskubaloi partidak eta bazkaria egongo dira, besteak beste. Aurten berrikuntza gisa, parte hartzen dutenek Aubixara joateko aukera izango dute (plazak bete arte), han gaua pasatzera. Interesatuak 25 euro sartu behar dituzte kontu korronte honetan: 2095 5036 51 1064353542 (Kutxabank).



# Astigarraga jubenil nesken taldeak Espainiako txapelketa jokatu du

Ainhoa Mugerzari eman diote atezain onenaren saria



Jubenil mailako Euskadiko eskubaloitxapelketako Lauko Finala jokatu dute asteburuan Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako lau talderik onenek Etxebarrin, tartean Sanloko Casa Astigarraga GYS Sport taldeak. Etxeko taldeak, Kukullagak, irabazi du txapelketa, eta elgoibartarrek hirugarren postua eskuratu dute. Horrenbestez, Espainiako txapelketako sektoreko fasea jokatzeko sailkatu dira.

Lehen jardunaldian aldapa gora jarri zitzaizen txapelketa elgoibartarrei, 22-25 galdutuz eta Aiala Zarautzen kontra. Bigarren jardunaldian, baina, meritu han-

diiko garaipena lortu zuten elgoibartarrek. Pronostiko guztiak hautsiz, 18-16 hartu zuten mendean Kukullaga. Finala irabazteko aukerakin alegatu zen Casa Astigarraga azken jardunaldira, baina Barakaldoko Zuazo taldearen berdindu egin zuten. Honenbestez, hirugarren postua eskuratu zuten elgoibartarrek.

## Ainhoa Mugerza, atezain onena

Kukullaga taldeko Maria jokalaria jaso zuen jokalaririk onenaren saria, eta atezainik onenarera, berriz, Casa Astigarragako Ainhoa Mugerza elgoibartarri eman zioten.

## Euskal Herriko eta Espainiako ehun bat motorzalek hartuko dute parte domekako Enduro proban



Urnobitza moto-klubak antolatuta, Elgoibarko Enduro motor txapelketa jokatu dute domekan. Bost bat urteko etenaren ondoren, iaz berreskuratu zuten proba hau, eta aurten eta Euskal Herriko Enduro Txapelketarako proba puntuagarria izango da. Iaz bezala, Euskal Herriko eta Espainiako ehun bat motorzalek hartuko dute parte. Mintxetako aparkalekuan hasiko da proba, eta 30 bat kilometroko ibilbidea osatu beharko dute partaideek. 9:00etan hasiko da.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Leioa 0 (3. maila)  
Orioko 2 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Elgoibar 3 – Beasain 3 (Neskek)  
Elgoibar 4 – Euskalduna 2 (Jub.)  
Eibar 1 – Elgoibar 0 (Kad. A)  
Zumaia 3 – Elgoibar 2 (Kad. B)  
Euskalduna 3 – Elgoibar 7 (Lehenengo inf.)  
Anaitasuna 1 – Elgoibar 2 (Inf. Txiki.)  
Aretxabaleta 3 – Elgoibar 1 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 7 – Arnedo 1 (Jub.)  
Samaniego 0 – King Kong Elg. 6 (Jub.)

### ESKUBALOA

Alcorta Elg. 27 – Urdaneta 24 (Sen. mut.)  
Bidasoa Irun 18 – Gabaz Elg. 22 (Sen. mut.)  
Astigarraga Elg. 22 – Aiala 25 (Jub. neskek)  
Astigarraga Elg. 18 – Kukullaga 16 (Jub. neskek)  
Astigarraga Elg. 17 – Zuazo 17 (Jub. neskek)  
Beristain Elg. 26 – Bidasoa Irun 21 (Jub. mut.)  
Cometel Elg. 26 – Zarazpe 22 (Inf. neskek)  
Deca Elg. 31 – Egia Bat 20 (Inf. mut.)  
San Roke Elg. 19 – Ereintza 17 (Inf. neskek)  
Amenabar 20 – Bankoa Elg. 23 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 19 – Aloña Mendi 15 (Inf. neskek)

### ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Legazpi 7 (1. maila nag.)  
Lagunak 20 – Goierri 22 (1. maila nag.)  
Lagunak 4 – Aurrera Saiaz 22 (1. maila nag.)  
Lagunak 11 – Tartaloetxe 22 (1. maila jub.)  
Legazpi 22 – Lagunak 17 (1. maila jub.)  
Zestoa 21 – Lagunak 22 (1. maila kad.)  
Eibar 22 – Lagunak 19 (Nag.)  
Eibar 9 – Lagunak 22 (Jub.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12  
12:30 Elgoibar – Aurrera (Kad. B)  
17:00 Elgoibar – Amaikak Bat (Erreg.)  
Domeka, 13  
11:30 Elgoibar – Anaitasuna (Aleb.)  
16:30 Elgoibar – Amaikak Bat (Kad. A)

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 12  
11:00 Ikus Elg. – Udarregi (Inf. neskek)  
12:15 Bankoa Elg. – Bidasoa (Inf. mut.)  
16:00 Gabaz Elg. – Corazonistas (Sen. mut.)  
17:45 Beristain Elg. – Tolosa (Jub. mut.)  
Domeka, 13  
11:00 Astigarraga Elg. – Eibar (Jub. neskek)

### ESKU PILOTA

Barixakua, 11  
21:30 Lagunak – Intxurre (1. maila kad.)  
22:15 Lagunak – Allerru (1. maila jub.)  
23:00 Lagunak – Aurrera Saiaz (1. maila nag.)

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **699 232 823**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **606 354 982**
- Gizonezkoa lan bila. Urteko sasoi jakinetarako lanak egiteko prest. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **677 866 495**
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako. Garbiketa lanetan eta zerbitzari moduan esperientzia. Elikagaiak manipulatzeko agiria daukat. ☎ **678 292 120 / 602 473 663**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Erreferentziak ditut. ☎ **648 039 187**
- Emakumea lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **672 966 528 / 943 254 087**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **671 948 637**
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **602 814 484**
- Emakume elgoibartarra eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna. Autoa daukat. ☎ **688 606 181**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. edo garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **677 521 374**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientziaduna. Etxeko lanak egiteko ere prest. ☎ **697 702 158**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 102 186**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **646 464 300**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **675 358 119**
- Gizona lan bila. Adinekoak zaintzen eta etxeko lanak egiten esperientzia daukat. ☎ **692 332 871**
- Gizon arduratsua lan bila: Sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak egiten, adinekoak zaintzen... Paperak legez ditut. ☎ **631 053 415**
- Emakumea lan bila. ☎ **631 203 287 / 622 037 598 (Wilma)**
- Emakumea lan bila: zerbitzari, dendako laguntzaile... ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea adinekoak edo ezinduek zaintzeko prest. Gaez ere bai, etxean zein ospitalean. Ibilgailua daukat. ☎ **602 561 469**

### ESKAITZA

- Sukaldari laguntzaile behar dugu, asteburuetan tabernan lan egiteko. ☎ **678 327 265**

### ETXEBIZITZAK

- Pisua alokatzen dut erdialdean, Kalegoen plazatik gertu. Bi logela, etxetresna berriak. Berritua eta altzariekin. Prezioan Internet barne. ☎ **660 056 240**
- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **636 581 194 (Maria)**

- Logela bakarreko etxea alokatzen dut, Errosario kalean. ☎ **630 374 124 (Naiara)**

### PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak ematen ditut, LH5-6 eta DBH1-2 mailetan. Esperientziaduna. Eki ordenagailu programarekin, euskaraz zein gaztelaniaz. ☎ **699 477 611**
- Gazte bat behar da, DBH1 mailako ikasle bati klase partikularrak emateko. ☎ **943 756 188 (19:00etatik aurrera)**

### GARAJEAK

- 44m2-ko garajea alokatzen dut Jausoron. ☎ **943 742 322 / 675 403 763**
- Garaje handia eta itxia alokatu edo salduko nuke. Jausoron dago. ☎ **652 727 631**
- Garaje murraduna alokatzen dut, Lekuederren. ☎ **660 042 159**

### KINTOAK

- 1964an jaiotako mendarorrek bazkaria egingo dute ekainaren 21ean, Landa jatetxean. Iluntzean DJ saioa. Interesatuak 80 euro sartu behar dituzte, Kutxabankeko kontu honetan: 2095 5054 00 9113698813. Azken eguna, maiatzak 31. ☎ **638 233 326 (Belen) / 629 258 172 (Juanmi), 1964mendaro@gmail.com**

### BESTERIK

- Ume baten betaurreko urdinak aurkitu ditut Bernardo Ezenarro kalean. Udaltzaingoa utzi ditut.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Gutxitan gertatzen da horren hedadura laburreko lege batek horrenbeste interpretazio judizial izatea eta profesional guztiak lotzeko beste jurisprudentzia ezartzea.

Gutxitan gertatzen da horren epe motzean lege bat horrenbeste aldatzea.

Jabetza Horizontalaren Legeak, eraikin berekoen betebeharrak eta eskubideak arautzen dituenak, hogeita lau artikulua dauzka, baina duen garrantziagatik, ez da horren ona izan horrenbeste artikulua idatzi izana bere inguruan, nahaste handia sortu baitute.

Arrazoi horregatik, elkarbizitzarako gaitan zentratzen da bereziki legegilea. Oinarrizko printzipioak baino ez ditu ezartzen, elkarbizitza egoki baterako profesional guztiak aplikatu behar dituztenak. Hala, interpretaziorako tar-te handia lagatzen diete epaileei, aldian-aldian sortzen diren arazo edo egoera ezberdinei, legean jaso gabeko egoera horiei, irtenbide egokiak emateko.

Horregatik, bizilagunen arteko gatazka egoerek sarri epaileek interpretatzea eskatzen dute. Horrenbestez, profesionaloi aukera guztien gaineko informazioa ematea dagokigu, lege horren interpretaziorako aukera guztien berri ematea alegia.

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak, zure 4. urtebetetzean! la konturatu gabe Spiderman bezain handia hazi zara! Muxu erraldoi bat etxekoen, eta bereziki, anaia Manexen partez.



• Zorionak, **Alora**, hila-ren 13an 3 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen, eta bereziki, Aimarren partez.



• Zorionak, **Maialen**, domekan 8 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen, eta anaia Markelen partez.



• Zorionak, **Narrea**, gaur 7 urte egin dituzulako. Ondo pasa eta muxuak familiakoen partez.



• Zorionak etxeko printzesari gaur 3 urte bete dituelako. Gurasoen eta etxekoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Luken**, apirilaren 9an urtebete egin zenuelako. Zure irribarreak esnatzen gaitu goizero. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Idola**, asteazkenean 8 urte egin zenituelako. Etxekoen eta, bereziki, Yuriren partez.




• Zorionak, **Rayan**, gaur 6 urte egin dituzulako. Ondo pasa, eta muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Zugat**, zure hirugarren urtebetzean. Muxu bat etxekoen eta bereziki, Haitzart eta Laieneren partez.



• Zorionak, **txapeldun!** Atzo 6 urte! Ederki pasatu genuen txokolatadana! Orain ondo-ondo pasa oporretan. Patxo handi bat etxekoen partez.



• **Eulali**, 2 urtetxo bete dituzu! Zorionak eta muxu pila-pila, etxekoen partez.



III. URTEURRENA

## EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

*“Zertarako mila hitz? Birekin, nahikoa: maite zaitugu”*

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus



III. URTEURRENA

## EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

*Zure begiek ene maitia  
badute biek dir-dir ezta  
zeruko lore miresgarriak  
izarren pare zoragarriak.  
Maitasunez, etxekoek.*

*III. urteurreneko meza astelehenean,  
apirilaren 21ean, izango da arratsaldeko  
19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



## 11 barixakua

### Ipuin kontalaria

17:30 'Rosa, ipuin bat

kontaidazu'

HH2tik LH2ra arteko umeentzako. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

### Antzerkia

20:30 'Ondoko hilobiko tipoa'

Txalo produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

### Gure Esku Dago

22:00 'Gazta zati bat'

Mendaroko San Agustin kultur gunean.

## 12 zapatua

### Skitaldia

11:00 Gure Esku Dago

Ekainaren 8ko giza katerako metroak jarriko dituzte salgai, Kalegoen plazan.

### Dolitika

11:00 EGI eguna

Kalegoen plazan.

### Aisialdia

11:30 Abxubxiamaika

HHko haurrentzat, Kalegoen plazan.

## 13 domeka

### Kirola

10:00 Enduro moto lasterketa

Euskadiko txapelketarako proba puntuagarria. Mintxetan.

### Kirola

10:00 Kilimon Trail

Mendaroko mendi lasterketa. Herriko Enparantzan hasiko da.

### Kirola

16:00 Txirrindulari lasterketa

Lagun Taldeak antolatuta, Kalegoen plazan.

### Antzerkia

16:30 'Terapia'

Txirri, Mirri eta Txiribitonen emanaldia. Herriko Antzokian.


## 22 martitzena

### Erakusketa

18:30 'Burdinezko arima'

Fernando Callejaren erakusketa, Kultur Etxean.

Gaztelekua itxita egongo da apirilaren 14tik 21era. Ekintza bereziak egongo dira 22tik 27ra.




Aste Santua dela eta, Ludoteka itxita egongo da apirilaren 17tik 21era. Ondo pasatu!

## ZINEA

«Monuments men»  
12: 19:00/22:15\* (VOS)  
13, domeka: 19:00/21:30  
14, astelehena: 21:30



«Gente en sitios»  
17, eguna: 21:30  
18, barixakua: 22:15

«Asier eta biok»  
19: 19:00/22:15\* (VOS)  
20, domeka: 19:00/21:30  
21, astelehena: 21:30



«El medallón perdido»  
20, domeka: 16:30

## BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

| 09:00 - 22:00   | 22:00 - 24:00                        | 24:00 - 09:00  |
|---|--------------------------------------|--|
| 11 Barrenetxea<br>12 Ibañez<br>13 Ibañez<br>14 Garitaonandia<br>15 Etxeberria<br>16 Fernandez<br>17 Etxeberria<br>18 Etxeberria<br>19 Barrenetxea<br>20 Barrenetxea<br>21 Barrenetxea<br>22 Garitaonandia<br>23 Etxeberria<br>24 Yudego<br>25 Fernandez | Astelehenetik igandera<br><br>Yudego | Azkue (Eibar)<br>Toribio Etxebarria 4<br>(943 202 344) |

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tallerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



# HARTU ZANK!

EGI EGUNA 2014 ELGOIBAR

APIRILAK 12

11:00 - IKURRINAREN IGOERA [Batzokian]

11:15 - OMENALDIA [Kalegoen plazan]

12:00 - EKITALDI NAZIONALA

Euzko Gaztedi  
Izaskun Bilbao  
Andoni Ortuzar

14:30 - HERRI BAZKARIA [Parokiako arkupean]  
Bertoak eta trikitixa

18:00 - PELOTA PARTIDA [Kalegoen frontoian]

Pabai Eugi                      Sebastian Gonzalez  
Iker Txumuka                  Asier Lizarralde

[arratsaldean zehar] Puzgarriak

19:00 - TRIKI-POTEOA

21:00 - 22:00 - DISKOFESTA (1 zatia)  
[Maalako parkean]

22:00 - AFARI-LUNTXA

23:00 - DISKOFESTA (2 zatia)  
Oihan Vega (Gaztea)

